AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

5773

AGINDUA, 2011ko azaroaren 29koa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, zeinen bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Menpeko Langileen, Administrari Laguntzaileen eta Administrarien kidegoetako karrerako funtzionario izendatzen baitira 2008ko enplegu publikoko eskaintza onartzen duen 2008ko irailaren 23ko 161/2008ko Dekretutik eratorritako hautaketa-prozesuan hautatutako izangaiak.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren 2010eko apirilaren 16ko Aginduaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomoetan 2008ko EPEtik eratorritako hautaketa-prozesuak arautu behar dituzten oinarri orokorrak onartzen dira.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren 2010eko apirilaren 16ko aginduen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren Menpeko Langileen, Administrari Laguntzaileen eta Administrarien kidegoetako karrerako funtzionario bezala sartzeko hautaketa-prozesuetarako deia egiten zen.

Hautaketa-prozesua amaitu eta gero, IVAPeko zuzendariaren 2011ko azaroaren 3ko ebazpenen bidez (2011ko azaroaren 7ko EHAA), hautatutako izangaien behin betiko zerrenda osagarriak argitaratu ziren, eta, halaber, egutegiko hogei eguneko epea ezarri zien betekizunei eta merezimenduei buruzko agiriak aurkezteko.

Agindu honen I. eranskinean agertzen diren hautatutako izangai guztiek eskatutako dokumentazioa ezarritako epe barruan aurkeztu dutenez, hautatuak izan diren kidegoko karrerako funtzionario izendatu egin behar dira.

Halaber, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 52.2 artikuluak ezarritakoa betez, funtzionario berriak, beraiek adierazi duten lehentasun-hurrenkeraren arabera eta behin betiko hautatu direnen zerrenda lortu duten hurrenkerari jarraituz, bete gabe dauden lanpostuei atxikiko zaizkie, eta, atxikipen hori, ondorio guztietarako, lanpostuen betetzeak gordeta daukan sistemaren bidez lortutakotzat joko da.

Horregatik guztiagatik, eta karrerako funtzionario sartzeko hautaketa prozesuetako oinarri orokorrak arautzen dituen 2010eko apirilaren 16ko Aginduaren hamaikagarren oinarriarekin bat, 2008ko enplegu publikoko eskaintzatik eratorrikoak direla-eta, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 6.1.i) artikuluak emandako ahalmenez baliaturik, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– 2008ko enplegu publikoko eskaintza onartzen duen 2008ko irailaren 23ko 161/2008ko Dekretutik eratorritako hautaketa-prozesuan hautatutako izangaiak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko karrerako funtzionario izendatzea, agindu honen I. eranskinean zehazten den moduan.

Bigarrena.– Agindu honen eranskinean adierazten diren izendatutako izangaiak 2011ko abenduaren 2an jabetu beharko dira lanpostuaz.

Hirugarrena.– Ezarritako egunean, baten batek jabetza hartzen ez badu, deialditik eratorriko eskubide guztiak galduko ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko karrerako funtzionarioaren izaera bereganatzeko direnak, salbu eta tartean pisu handiko arrazoirik izan ez bada, behintzat.

Laugarrena.– Funtzionario berriak esleitutako lanpostuei behin betiko izaeraz atxikiko zaizkie, eta, atxikipen hori, ondorio guztietarako, lanpostuen betetzeak gordeta daukan sistemaren bidez lortutakotzat joko da.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Agindu honen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari. Errekurtsoa jartzeko epea hilabetekoa izango da, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita. Bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Herriko Auzitegi Nagusian, eta, horretarako, errekurtsoa jartzeko epea bi hilekoa izango da, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

Bigarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko azaroaren 29a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

I. ERANSKINA

KARRERAKO FUNTZIONARIO IZATEKO IZENDAPENA EGITEN ZAIEN IZANGAIEN ZERRENDA

MENPEKO LANGILEEN KIDEGOA

NAN	Izen-abizenak		
20174573	Albillos	Espina	Elena
72438990	Arrieta	Baro	M.ª Mercedes
14592411	Arteta	Ramon	Juan Carlos
30616281	Bilbao	Lopategui	Maria Elena
14243998	Gutierrez	Calvo	Iñaki
15976224	Hernandez	Galan	Jesus
16266975	Larrimbe	Urrutia	Maria Felisa
14938787	Mauraza	Sanchez	Idoia
30590315	Medrano	Riaño	Jose Javier
30663080	Sanchez	Marcos	M.ª Victoria
14602899	Santocildes	Fernandez	Maria Yolanda
18597399	Sanz	Laguardia	Patirke
72245897	Villalobos	De Lamo	Jose Luis

ADMINISTRARI LAGUNTZAILEEN KIDEGOA

NAN	Izen-abizenak		
72719226	Abecia	Diez	Sonia
35775007	Aizpurua	De Miguel	Ruben
72431850	Albitos	Virtus	M.ª Eva
20176280	Arco	Ibaseta	Iker
16272940	Arrizabalaga	Fernandez de Mendiola	Amaia
16281659	Artaza	Rodriguez	Susana
44132015	Bengoechea	Viloria	Natalia
16284994	Berganza	Irastorza	Begoña
15992445	Berrondo	Arbelaiz	Joseba
20182647	Bilbao	Garay	Iratxe
11915867	Carretero	Perez	Rosa Isabel
22739847	Castaños	Liceaga	Garbiñe
20178642	Chamosa	Emaldi	Cristina
22737279	Corcuera	Rodriguez	Mercedes
16288681	Cuesta	Lopez	M.ª Isabel
16264434	Diaz	Ines	Palmira Antonia
14581959	Espizua	Mateos	Gotzone Miren

NAN	Izen-abizenak		
30590351	Fernandez	Barcina	Mila
15980773	Garcia	Ceberio	Fco. Javier
72535841	Garcia	Bazerque	Maria Andrea
16302184	Gil	Vegas	Jaione
16292858	Gonzalez	Martinez	Maria Aranzazu
11917155	Gonzalez	Muñoz	Julio
30628502	Gutierrez	Fernandez	Luisa
35768475	Iriondo	Lasa	Arantxa
35769039	Izaguirre	Elortondo	Lorea
16040064	Jauregui	Echevarria	Maria Begoña
29086605	Lahoz	Pe	Ana Cristina
30583116	Larrinaga	Echevarria	Miren Jone
11906741	Merino	Valverde	M.ª Pilar
15923339	Moreira	Lijó	Maria del Mar
20183645	Navarro	Lashayas	Isabel
30555064	Olarra	Abando	Cesar
30610683	Perez	Martinez	Miguel Angel
30615531	Pérez	Andrés	Rosa
16276193	Piñeiro	Martin	Txema
16265944	Plata	Dominguez	Maravillas
72721953	Sampedro	Garcia	Maria del Henar
44673084	Sanchez	Briones	Jorge
15377477	Sololuze	Arrieta	Maria Teresa
20174057	Torre	De Celis	Monica
44680636	Ugarte	Gancedo	Saioa
11908220	Uriarte	Urquiza	Ana
30613698	Varona	Garcia	Carlos Felipe
18593500	Villapun	Arbaizar	Miren Gotzone
22737691	Villoria	Muga	Raquel

ADMINISTRARIEN KIDEGOA

NAN	Izen-abizenak		
16270173	De Paz	Alonso	Maria Angeles
18601180	Mendia	Rodriguez	Elvira
14261055	Ojanguren	Echevarria	Eider
18595457	Porras	Ogueta	Elisa
15390716	Zuazua	Calle	Iraide